CLUB DEPORTIVO BILBAOk Igeriketa Batzordearen bidez eta erakunde hauen babesarekin: **Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Bilbao Kirolak, Uren Partzuergoa, URA-Uraren Euskal Agentzia, "La Caixa" Gizarte Ekintza, El Correo eta Euskaltel.**

ANTOLATZEN du

CLUB DEPORTIVOREN 78. IGERIKETA ZEHARKALDIA
BILBOKO ITSASADARRA
2017ko uztailaren 2a

RFEN-Ur Irekietako Espainiako III. Txapelketaren 5. Etapa

ARAUDIA

MAILAK

A – Promesak: 2003an edo hurrengo urteetan jaioak
B – Herriko Parte-hartzea doan
C – Seniorrak: 1983ko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra bitartean jaioak
D – Masterrak: 1973ko urtarrilaren 1etik 1982ko abenduaren 31ra bitartean jaioak
E – Beteranoak: 1973ko urtarrilaren 1a baino lehen jaioak
F—Ezgaitasunen bat duten kirolariak

ORDUTEGIA.

Irteera: Pio Baroja pantalana (uretatik).

Ordutegia: Gizonezko, Emakumezko promesak = 11:30etan
Gizonezko, Emakumezko herriko = 11:35etan

Emakumezko , Beteranoak = 12:00etan
Gizonezko Seniorrak, Masterrak, Beteranoak = 12:05etan

Helmuga: Pio Baroja pantalana.

IBILBIDEAK

Promesak: Pio Baroja pantalanetik hasita igerilariek Guggenheim Museora joko dute, bira egingo dute Calatravaren zubia baino 10 metro aurrerago jarritako buia batean (buia ezkerrean utzita) eta Pio Baroja pantalanean jarritako helmugarantz abiatuko dira.

Distantzia: 680 metro.

Gainerako mailak: Promesa mailakoen abiapuntu beretik irtenda igerilariak Arrupe pasabidea baino 10 metro aurrerago eta Guggenheim Museoaren zabaldegi inguruan jarritako bi buiatarantz zuzenduko dira, bertara heldutakoan bira egingo dute, buia ezkerrean utzi eta helmugara (Pio Baroja pantalanera) helduko dira.

Distantzia: 2.380 metro.

Igerilariak irteera-ordu ofiziala baino 15 minutu lehenago egon beharko dira irteera-lerroan.

GUTXIENEKO DENBORAK

Gutxieneko denborak ezarri dira bi distantzietarako:

Proba laburra: 12 minutu

Proba luzea: 30 minutu

Denbora horiek itzuliaren erdiko puntuan zenbatuko dira. Behin gutxieneko denbora gainditutakoan, Epailearen ontziak itzulitik igaro gabe dagoen parte-hartzailea erretiratuko du.

IZEN-EMATEAK

Zeharkaldi honetan parte hartu ahal izango dute **ekainaren 29ko (osteguna) gaueko 23:59ak baino lehen izena eman duten** igerilari guztiek.

- Izen-emate guztiak Club Deportivo Bilbao-ren web orrian (www.club-deportivo.com) egingo dira eta bankuko txartelarekin ordainduko dira.

- RFEN-Ur Irekietako Espainiako III. Txapelketarako sailkatu nahi duten igerilariek araudi espezifikoa bete beharko dute (Ikus: http://212.48.92.160:8080/copa/inicio). Salbuespen gisa onartuko da Ur Irekietako Espainiako Txapelketarako puntuatu nahi duten haur kategoriako hautagaien (2003-2002an jaiotakoak) izen ematea. Proba luzean parte hartu behar dute eta araudia bete.

- Federatu GABEAK: 2007. urteko urtarrilaren 1a baino lehenago (proba laburrerako) eta 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenago (proba luzerako) jaioak.

- Proba elektronikoki kronometratuko da txip baten bidez (ChampionChip). Txip propioa duten parte-hartzaileek beren kodea adierazi beharko dute izena ematean. Gainerakoek “igerilariaren poltsa” jasotzeko unean eskuratuko dute beren txipa eta ezkerreko eskumuturrean eduki beharko dute proba osoan zehar. Helmugako zubiaren azpitik pasatzean, bertan kokatutako panela ukitu beharko dute txiparekin.

Izena eman duten igerilariek ordainketaren erreziboa erakutsi beharko dute “igerilariaren poltsa” jasotzeko

Parte hartu dezakete baita ere:

- Ezgaitasunen bat duten kirolariek.
- Federatutako triatletek.

IZENA EMATEAGATIKO KOSTUA

- **Federatuak: 12,00 € igerilari bakoitzeko.**
- **Federatu GABEAK: 17,00 € igerilari bakoitzeko** (kirol aseguru eta guzti).

Club Deportivoko eta Bilbao Kirolakeko abonatuentzako izen ematea doakoa da. Txipik ez dutenek 2€ ordaindu behar dute alokairuagatik**.**

-

Izena epez kanpo emanez gero, 15,00 € ordaindu beharko da federatuen kasuan, eta federatu gabekoen kasuan 20,00 €.

SAILKAPENAK

- Banaka, mailaka eta sexuka.
- Garaikurrak banatuko zaizkie lehen 3ren artean sailkatzen direnei mailaka, sexuka eta taldeka (promesak eta gainerako maila guztien multzoa)

EPAIMAHAIA, SALBAMENDUA ETA SOROSPENA

Uretan igerilariek alboan izango dituzte beti behar diren zaintza eta sorospen ontziak (Ertzaintzaren Itsas Salbamendu Unitatea, Gurutze Gorria, piraguistak, surflariak, eta abar)

Neopreno-jantziaren erabilera ez dago baimenduta, ezgaitasuna duten kirolarientzat eta ur irekiko Espainiako kopan puntuak lortzen duten parte-hartzaileentzat izan ezik, bainujantzien araudi espezifikoa jarraitu behar dutelako. Zeharkaldia osorik egiten duten igerilariek txanoa buruan izan behar dute igerialdi guztian zehar eta, batez ere, **helmugara heltzean**, bestela ez dira sailkatuko. Sailkatzeko ezinbestekoa da **helmuga-lerroa** igarotzea.

Espainiako Igeriketako Errege Federazioko Epaile Arbitroak eta Igeriketako Bizkaiko Federazioko Epaileen Elkargoak kontrolatuko du proba hori, eta eurengana jo beharko da zalantza kasuetan.

Probaren Zuzendari Teknikoa: Javier BERASATEGI

CLUB DEPORTIVO – Alda. Rekalde, 28 – 48009 BILBAO - Tlfno.: 94-4231108 / 09
Fax.: 94-4241015
www.club-deportivo.com
deportivo@club-deportivo.com